

# IKASLEEN

6. zenbakia

2004ko maiatzaren 6a

HERNANI INSTITUTUA

'KABUKI' - JOSTUN ETA DISEINATZAILE HERNANIARRA

## "Zuen mundua josi dezaket zuen ametsen neurrira"

Itziar Lamuedra - Isabel Rico  
HERNANI INSTITUTUA

Jostuna eta ameslariya nire izena Kabuki da tela, goraize, orratz, titare, hari patroian harira betiko korte klasikoetan diseinu berri-berrira eguneroko arropetatik jai gauerako jantzira gazteenetatik zarreneraino denok dezute kabida. Zuen mundua josi dezaket Zuen ametsen neurrira.

XANTA

Noiz konturatu zinan zure jostun diseinatzaile bokazioaz? Guatemala eta Mexikotik etorri eta gero. Han denbora luzea pasa nuen maya indigenekin bizitzen. Guatemalan erresistentzian zegoen herri batean bizi nintzen eta bertan egoteak eragin handia izan zuen niregan zentzu honetan, zeren eta han erresistentzia mota bat da ehunen kontua, jazkera. Bertako emakumeak, denbora dutenean, zeren lana asko egin beharra daukate egunean zehar, ehunak egiten dituzte, euren senitartekoak jazteko. Oso lan garrantzitsua da huraxe. Horrek nolabait neure baitan gordeta neraman bokazio bat piztu zidan.

Noiz hasi zinan jostuntza ikasten? Guatemalatik etorri eta gero jostuntza teknika ikasten hasi nintzen, hemen Hernanin Rosa izeneko jostunarekin. Gaur egun ere berarekin dihardut, ikasten eta lan egiten. Gertatzen zaitzaidana zera zen: orratz bat inoiz hartu ez banuen ere, buruan diseino pila bat neuzkan, ideia ugari forma hartzeko zain. Hasi-eran, ikasten nuen heinean, nerretzat arropa egiten hasi nintzen, aspalditik nituen ideia horiei gorputz ematen. Modu praktikoan ikasi nuen beraz jostuntzaren teknika eta eroso sentitu nintzenean, enkarguko arropa egiten hasi nintzen, neurrira eginiko jantziak.

Eta edo garai ezberdinak bereizten dituzu zure lanean. Zeintzuk dira etapa hauek? Neure ibilbide profesionalan bi garai bereizten ditut. Hasi-eran, gaueko arropa diseinatzen eta josten hasi nintzen, bertan ehun plastiko eta sintetikoak baloratzen nituen gehienbat, eta kolorearen erabilpena garrantzitsua zan. Aurrerago, bigarren etapa batean, eguneroko arropa lantzen hasi nintzen, arroparen funtzionalitatea bereganatuz, garai honetan txarola adibidez asko erabiltzen nuen eta konturatu nintzan oso materiale egokia dela hemengo eguraldiarentzat, haizea eta euriantzat batez ere. Garai honetan konturatu nintzen materiale naturalak gustokoagoak ditudala: artilea, lino, algodoia eta kolorearen erabilera, tinteena hain zuzen

ere, dexente murriztu dut, askotan ohialak dakartzaten kolore naturalak erabiltzen baititut. Azkeneko etapa honetan era guztietako jantziak egiten ditut.

Zein dira egitea gehien gustatzen zaizkizun jantziak? Nahiz eta denetarik egin, neri gehien gustatzen zaitena soineko eta berokiak egitea da. Berokiei dagokionez gainera nolabaiteko eksklusiba daukat, zeren eta badaukat Marruekosan lagun bat artilezko ehun naturalak egiten dituen, beraiek txilabak egiteko erabiltzen dituztenak, eta konturatu nintzan oihal horiek oso egokiak zirela berokiak egiteko.

Non daukazu zeure tailerra? Lehenago arazoak nituen loka-



Kabuki, Zikuzuloko lokalean.

larekin, baina orain dela urte eta erdi, gutxi gora behera, Hernaniko Udalak Zikuñagako Eskola zaharretako lokalak utzi zizkigun plastika eta beste espresio jarduerak lantzen ditugun Hernaniko hainbat gazteri. □

### ZIKUZULO

Zikuñaga auzoan kokaturiko Zikuzulo artelekuan, espresio eremu ezberdinak lantzen dituzten hainbat gazte topa ditzazkegu, hain zuzen ere zeramika, margolaritza, argazkigintza, egur taila, jostuntza, antzerkia eta burdin lantzea. Artista hauek Errapia kultur elkartearen osatzen dute eta jadanik erakusketa ugari egin dituzte, iazko abenduan taldeak antolatutako "1º kultur eguna" estreinatu zutelarik.


Iker Apaolaza - Oihana Ortega  
HERNANI INSTITUTUA

## KOMIKIA



LIBURU KRITIKA

HELGA SCHNEIDER



## "Dejame ir madre"

Ainhoa Garcia-Kristina Hernandez  
HERNANI INSTITUTUA

1998AN Helga Schneiderrek bere amaren lagun baten eskutitz bat jaso zuen, eskutitz honetan bere amari bisita bat egitera joateko erregua zetorren, amak 90 urte inguru zituen eta Vienako zaharren egoitza batean zegoen.

Helgak 4 urte zituen bere amak bera eta bere anaia txikia aitarekin utzi eta Alemaniako S.S.tako erregimen nazian sartu zen. Hemen bere kargua kontzentrazio-esparruetako zaintzaileak hezitzea, hil behar zituzten judu eta traidoreak hautatzea, lan behartuetara bidaltzea edo prostituitzera, baita ere pertonekin zituzten esperimenduetan laguntzea (giza gorputzak jasan dezakeen hotz-bero baxuena zein den jakiteko izotzez beteriko bainera batetan hauek sartzea).

1941ean amak familia guztia utzi, hau da, 4 urteko alaba Helga, honen anaia txikia eta senarra, eta alde egin zuen.

1971ean Helga, bere amak egin ziona eta gero, hau bisitatzen joan zen honek bere semea ezagutu zezan. Helgaren dezepzioa izugarria izan zen, ez bere semeari kasurik egin ez ziolako soilik, baita bere ideia faxistei eusten ziolako ere. Gainera Helga "erosten" saiatu zen hildako juduen urrearekin.

Bisita honen ondoren, Helgak ez zuen ezer gehiago jakin nahi izan bere amari buruz lehen aipatutako eskutitza jaso zuen arte, eskutitz honek harridura handia sortarazi zion ama hilda zegoela uste baitzuen.

Bisita honetan Helgak aurkitu zuen emakumea alde batetik oso ahula eta maitasun behar izugarria zuen pertsona bat zen, baina bestalde Holokaustoan hildakoeziko mespretxu handia sentitzen eta adierazten zuen oraindik.

Hala eta guztiz ere, bere amaren ahazteak sortutako zauriak gora behera, gainera hain ikaragarriak diren erailketen laguntzaile izan zela jakinda, Helga konturatzen da oso zaila dela ama bat ahaztea. □

# TXOKOA

Ikasleen Txokoa kaleratzen da Hernaniko ikastola eta ikastetxeek Hernaniko Udalarekin eta Hernaniko Kronikarekin egindako elkarlanari esker. Datozen hilabeteetan jarraipena izango du.

HERNANI INSTITUTUA

2004ko maiatzaren 6a

6. zenbakia

## Nere Bordara bisita didaktikoa

Ainhoa Izagirre-Kristina Hernandez  
HERNANI INSTITUTUA

HERNANI Institutuko animazio giza-kulturaleko goi mailako zikloko ikasleek Nere Borda parkean hainbat bisita gidatu egitea proposatzen dute, izaera elkarreraginezkoarekin eta ikasleak protagonista direlarik.

Irteera honen helburua modu jolasgarri eta hezigarri batean parkearen ezaguera bermatzea da joku eta ekintza ugarien bidez, eta horrela gai ezberdinen arteko lanen bidez ikasleek bere inguruko ezaguera sakonduko dute.

Ekintza bakoitza eta kurrikulumeko gai bakoitza erlaziozaturik egongo dira, adibidez: iparrorrazaren erabilera, PH aren azterketa...

Parkea hiru gunek desberdintan bana dezakegu, lehenengoari basotxo deitzen zaio eta honek ibilaldi bat egiteko aukera ematen du itzaletan. Hemen Monterrey-ko pinuak daude eta altuera handiko beste espeziezko zuhaitzak. Parkean nabarmentzen den zuhaitzik handiena Monterrey-ko pinua da, Gipuzkoako enborrik zabalena duena, 4,41 metro eta gainera 25 metroko altuera du.

Parkearen bigarren zatia lora-tegi klasikoa deitzen zaio, eta hirugarren zatia gune didaktikoa, hemen ikasleak landareak landatzeko gunea dute. □




Nere Borda parkean bisita gidatua.

## Bitxikeriak

Santi Garcia - Aitziber Sarasola - Oihane Iparragirre - Eli Rubio  
HERNANI INSTITUTUA

### KOTXE KARRERAK HERNANIN



Kotxe karrera Galarreta inguruan pasatzen.

### Orain 80 urte ere, motorren hotsa Hernanin.

XX.mendeko bigarren hamarkadan, 1923.urtean hain zuzen, Donostiako II.Erakustazoka egiteko zela eta, motorren kirola gogoko zuen hainbat zalek lasterketa bat antolatu zuten.

Hernaniko lurrian, orain Lasarte Oriakoa den hartan, *karreretako kotxe eta motorren zirkuito* bat zegoen. Irteera eta helmuga Oriako auzoan izaten zituen; ibilbidea honako hau zen: Andoain, Urnieta, Hernani, Galarreta, Errekalde eta Irubide. Motorrek 20 buelta eman behar zituzten, eta turismoek bost gehiago. Hasiera batean Hernaniko kaxkotik, Urumea (Kardaberaz) kaletik, pasatzen zen karrera eta kalean egurrezko paso altu bat jartzen zutelara diote zaharrenek. Autoak *Bugati* eta *Masserati* izaten ziren gehienbat eta azkeneko proban, 1935ean egin zen hartan, 155,7km/o.ko abiadura lortu zuten automobilek; horrek esan nahi du, egoera ederrean zegoela zirkuitoa; baina zoritxarrez, Gerra Zibila ezin izan zuen gainditu. □

## Orriaren egileak:



Santi, Ainhoa, Oihana, Oihane, Isabel, Itziar, Eli, Ainhoa, Kristina, Iker eta Aitziber.

### BILBOKO ERASKUSTAZOKA



Tatuajeak egiten Bilboko erakustazokako gunean.

### “Hernaniko Giza eta Kultur Animazioko ikasleak bertan egon ziren”.

2004ko martxoaren 31ean Bilboko erakustazokan Euskal Herriko lanbide heziketako zikloen aurkezpena egin zen eta bertan Hernaniko Giza eta Kultur Animazioko ikasleak parte hartu zuten. Bertan ziklo bakoitzak *stand* bat zuen eta bakoitzak bere zikloari buruzko informazio eta ekintzak azaltzen zituen. Hernaniko Giza eta Kultur Animazioko *stand*-ean bertako ikasleek tatuaje tailerra egin zuten, argazkian ikus daitekeen bezala. □